

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Diputatu Kontseiluaren 14/2016 Foru dekretua, otsailaren 9koa, Nekazaritza Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duena

Foru Administrazioan, administrazio antolaketa ezartzeko eskumena Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak du bere gain, halaxe xedatzen baitute Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak, Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen Arteko Harremani buruzko Legeak, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, eta Batzar Nagusiek onartutako erakunde araudiak.

Ahalmen hori erabiliz, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua onartu zen, Arabako Foru Aldundiaren antolamenduari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzkoa. Horren babesean, Diputatu Nagusiak Arabako Foru Aldundiaren egituraren barneko sailak eta horiei dagozkien gaiak zeintzuk diren ezarri ditu uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez.

Nekazaritza Sailari, hauekin loturiko eskumen eremuak eta eginkizunak esleitzen zaizkio: nekazaritza, abeltzaintza, nekazaritzaren garapena eta esperimentazioa, landa garapena eta laguntza europarrak, mahastizaintza eta enologia, mendiak, eta baso aprobetxamenduak eta zerbitzuak, arrain eta ehiza ustiapenen kudeaketa, nekazaritzako azpiegitura hidraulikoak, eta ordenamendu juridikoak adierazten dituen gainerakoak.

Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko Foru Arauaren 38., 40., 70. eta 73. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan ezartzen dira sailei oro har ematen zaizkien ahalmen eta eskuduntzak, eta aipatu alorretan ere marko horren barruan jardungo du administrazioak.

Nekazaritza Sailak ardura eta eskumena duen eremu materiala finkaturik, foru dekretu honek sail haren egitura ezartzen du, horren inguruan emandako txostenak kontuan hartuz eta diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuan xedatutakoa betez.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Bakarra. Onartzea Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala, ondoren azaltzen denaren arabera:

NEKAZARITZA SAILAREN EGITURA**I. KAPITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. Jardun eremuak**

1. Nekazaritza Sailak, Diputatu Nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuan xedatutakoaren indarrez, hauekin loturiko eskumen eremuak eta eginkizunak dauzka:

- Nekazaritza.
- Abeltzaintza.
- Nekazaritzaren garapena eta esperimenezioa.
- Landa garapena eta laguntza europarrak.
- Mahastizaintza eta enologia.
- Mendiak, eta baso aprobetxamenduak eta zerbitzuak.
- Arrain eta ehiza baliabideen kudeaketa.
- Nekazaritzako azpiegitura hidraulikoak.
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

Era berean, sail honek bere gain izango du Arabako Foru Aldundiari dagokion nekazaritza eta/edo abeltzaintza alorreko beste edozein eskumen, aldundiaren beste sail bati esleitu ez bazaio.

2. artikulua. Egitura

Aurreko artikuluan adierazitako jardun eremuekin loturiko eginkizunak eta eskumenak betetzeko, Nekazaritza Saila, bere titularra den foru diputatuaren goi zuzendaritzaren pean, unitate organiko hauetan eratuko da, erantsitako organigramaren arabera:

1. Nekazaritza Zuzendaritza; honi atxikita daude:

a) Nekazaritza Garapenerako Zerbitzua, bere menpean honako hauek dituena:

- Nekazaritza Sustapenaren Atala.
- Landa Azpiegiturako eta Ureztatzaileen Bulegoko Atala.

b) Abeltzaintza Zerbitzua, bere menpean honako hau duena:

- Abelazkuntza Atala.

c) Zuzeneko Laguntzen Zerbitzua, bere menpean honako hauek dituena:

– Eskualdeetako sei nekazaritza bulego, Gasteizen, Amurrion, Murgian, Agurainen, Santikurutze Kanpezun eta Espejon kokatuak.

d) Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua.

e) Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua, bere menpean honako hau duena:

- Administrazio Kudeaketa Atala.

f) Mendi Zerbitzua, bere menpean honako hauek dituena:

- Basogintza Atala (Ekialdea)
- Basogintza Atala (Mendebaldea)
- Basogintza Atala (Erdialdea)

– Ehiza eta Arrantza Atala.

3. artikulua. Atxikitako erakundeak

Nekazaritza Sailari atxikitzen zaizkio erakunde hauek:

- ALDALUR ARABA SL sozietate publikoa (292)
- Lurraldeko Ehiza Kontseiluak (77)
- Lurraldeko Arrantza Kontseilua (78)
- Landa Garapeneko Arabako Kontseilu Aholkularia (235)
- Ureztaketaren alorreko Arabako Lurralde Batzordea (342)
- Nekazaritza Ekologikoaren Lurralde Batzordea (352)

4. artikulua. Diputatuaren eginkizun orokorrak

Nekazaritza Saileko foru diputatuari dagokio Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan foru diputatuei esleitzen zaizkien eskumen orokorrak erabiltzea, bai eta sail horri dagozkion eginkizunen eta jardun eremuen esparruan araudiak egozten dizkion beste guztiak ere.

Gainera, Nekazaritza Saileko foru diputatuari dagozkio, diputatu nagusiaren eta Diputatuen Kontseiluaren eskumenak eskuordetu eta deskontzentratzearen ondorioz, foru erakundeek funtzio publikoaren arloan duten eskumena erregulatuko duen araudia ezartzen duen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren 1. eta 3. artikuluetan jasotakoak, dekretu honetan adierazitako aldaketen kalteetan izan gabe.

Mendien gaian, Diputatuen Kontseiluak eskuordetuz gero, Araba Lurralde Historikoko Mendien Foru Arauak foru aldundiari izaera orokorrarekin esleitutakoak (salbu eta Onura Publikoko Mendien Katalogoan sartu behar diren mendien onura publikoaren adierazpena edo katalogotik baztertu behar direnen desafektazioa, bai eta katalogoan sartzeko edo ateratzen direnak), eta Diputatu Kontseiluari berariaz esleitzen zaizkionak.

Nekazaritza Sailari egotzi zaizkionak baldin eta haren menpeko beste erakunde edo organoren bati eman ez bazaizkio.

Foru diputatuak sailari atxikita dauden sozietate publikoak eta gainerako erakundeak zuzenduko ditu, dekretu honetan eta arloko berariazko legeetan ezarritakoaren arabera.

5. artikulua. Zuzendaritzaren eginkizun orokorrak

Zuzendaritzari dagokio Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 75. artikuluan adierazitako eginkizunak burutzea.

6. artikulua. Administrazio unitateetako buruen eginkizun orokorrak

Administrazio unitateetako buruei, dekretu honetan gaiaren arabera zehazten diren eginkizunenez gainera, honako eginkizun orokor hauek dagozkie:

1. Beren ardurapeko administrazio unitateari buruzko gaiak zuzendu eta kudeatzea eta beren eskumenerako gaiak ebazteko proposamenak prestatzea.
2. Haien nagusia den zuzendariari eta, hala badagokio, saileko foru diputatu titularrari laguntza tekniko ematea, dagokien unitatearekin loturiko gaiez.
3. Unitatearen urteko aurrekontu proposamena eta jardueren memoria gertatzea.
4. Giza baliabideen zuzkidurari buruzko proposamenak egitea eta beren langileen zuzeneko buruzagi lanak egitea, eginkizun hauek betez, besteak beste:
 - Ordutegia betetzen dela kontrolatzea.

- Baimenak eta lizentziak kontrolatzea.
 - Zereginak eta lanak banatu eta gainbegiratzea eta haien erantzukizuna izatea.
 - Unitateari atxikitako giza baliabideen erabilera optimizatzea.
5. Unitateko bulegoen barne araubideari arreta eskaintzea eta zaintzea, eta haren ondasun higigarri eta higiezinak administratu eta zaintzea.
6. Ezarritako helburuak lortzeaz erantzule izatea.
7. Foru Aldundiaren arautegi organikoetan eta erabakietan berari esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak.
8. Zerbitziburuen eginkizunak honakoak dira: azterlanak, txostenak, aholkularitza, proposamenak, programen kudeaketa eta jarduerak gauzatzea bere eskumenari egotzitako alorretan, arautegi organikoetako eta foru dekretu honetako aurreikuspenen arabera.
9. Atalburuen eginkizunak dira bakoitzaren unitate organoari dagozkion gaietan azterlan, txosten, kudeatze, aholkatze eta proposamenak egitea, eta hala behar izanez gero espedienteak bideratu eta izapidetzea. Zerbitziburu bakoitzak agintzen dizkien gainerako eginkizunak ere bete behar dituzte.

Administrazio unitateen arduradunak kanpoan egon edo aldi baterako eragozpenik edukiz gero, kasu bakoitzean zuzendaritzaren arduradunak zehazten duen pertsonak beteko ditu haien eginkizunak. Espresuki zehaztu ezean, dagozkion nagusi hierarkikoak beteko ditu.

7. artikulua. Kontratazio mahaia

Nekazaritza Sailean kontratazio mahai iraunkor bat eratzen da, sail honek bere eskumen eremuaren barruan prozedura irekiaren nahiz murriztuaren bidez egiten dituen kontratu guztietarako.

Kontratazio mahaia kide hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: Nekazaritza zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Idazkaria: Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Mahaikideak: Kontratazioa proposatzen duen unitateari atxikitako bi funtzionario.
- Kontuhartzaitza eta Kontrol Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Diputatu Nagusiaren Saileko Lege Araubidearen Zuzendaritzako teknikari legelari bat, edo holakotzat gaitutako funtzionario bat.

II. KAPITULUA

NEKAZARITZA ZUZENDARITZAREN ESKUMENAK

8. artikulua. Nekazaritza Zuzendaritza

Nekazaritza zuzendariari dagokio Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 75. artikuluan eta horrekin bat datozenetan zuzendariei esleitzen zaizkien eskumen orokorrak erabiltzea, bai eta delako sailari dagozkion eginkizunen eta jardun eremuen esparruan arautegiak esleitzen dizkion gainerako guztiak ere, aurreko 5. artikuluan jasotzen diren moduan.

Gainera, Nekazaritza Zuzendaritzari ondorengo eskumen zehatzak ere erabiltzea dagokio:

a) Sailari dagozkion gaiekin loturiko foru arau, dekretu, erabaki eta, halakorik izanez gero, foru aginduen aurreproiektuak gertatzea, izenpetzea eta foru diputatuari aurkeztea.

b) Bere ardurapeko zerbitzuen funtzionamendua hobetzeko edo baliabide materialak nahiz giza baliabideak optimizatzeako helburua duten eraberrikuntzak proposatzea.

- c) Lizentziak eta baimenak ematea, zuzendaritzari dagozkion gaietan.
- d) Saileko titularraren eskuordetzaz, zehapen ahalmena erabiltzea bere eskumeneko gaietan.
- e) Beste entitate edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuekiko lankidetzaren hitzarmenak proposatzea eta garatzea, bere zuzendaritzari dagokion gaiez, eta gastuaren justifikazio ekonomikoa kontrolatzea, saileko zerbitzuek garatutako gainerako hitzarmenetan.
- f) Nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatzeko eta egiteko laguntza programa izapidetu, kudeatu eta kontrolatzea.
- g) Santiagoko Nekazaritza Azoka antolatzeko eta egiteko lanak koordinatzea.
- h) Eskualdeetako landa garapenerako egitasmoen jarraipena egitea.
- i) Sailaren argitalpenen jarraipena eta kontrola egitea.
- j) Sailaren ordezkari izatea eta parte hartzea landa ingurunearekin zerikusia daukaten lurralde arteko nahiz erakunde arteko bilgune, batzorde edo entitateetan, horietan parte hartzeko eskatzen baldin bazaio.
- k) Sasoiko Lanaren Egitasmoa, Berdintasun Plana eta Informazioaren Segurtasun Plana koordinatzea.
- l) Arabako Batzar Nagusiekin zerikusia daukaten sailaren jarduerak koordinatzea.
- m) Foru Aldundiaren arautegi organikoetan eta erabakietan berari esleitzen zaizkion gainerako eginkizun guztiak betetzea.
- n) Atxikitako sozietateen egoera ekonomikoa eta kontabilitateko egoera aztertzea.
- o) Saileko beste zuzendari batzuk ordezteko haiek kanpoan, gaixorik edo aldi baterako ezinduta egonez gero edo abstenitu edo errefusatu izanez gero, irailaren 22ko 54/2015 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.
- p) Sailari esleitu zaizkion eskumenak gauzatzeko beharrezkoak diren araugintza jarduerak kudeatu, proposatu, garatu eta betearaztea arlo hauetan:
- Mendiak, eta baso aprobetxamenduak eta zerbitzuak.
 - Basoko jabari publikoaren babesa eta sustapena.
 - Mendien plangintza eta antolamendua.
 - Basoko zoruak zaindu eta hobetzea eta higadurari aurre egitea.
 - Basogintzako ziurtagiria.
 - Basoen osasuna.
 - Basoko suteak prebenitu eta itzaltzea, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailaren lankidetzan.
 - Basogintza prestakuntza, heziketa eta sustapena.
 - Mendietako bideak eta larreak.
 - Ur kontinentalen arrain eta ehiza aberastasuna kudeatzea.
 - Zaintza.
 - Halaber, Ehiza eta Arrantzako Lurralde Kontseiluen burutza izango du.
- q) Sailari dagozkion gaiei buruzko berriarazko programetan parte hartzea sustatu, koordinatu eta zuzentzea.

Zuzendariaren eginkizunak bere zuzeneko menpekoengan eskuordetu ahalko dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legean adierazten diren baldintza eta betekizunen arabera.

9. artikulua. Nekazaritza Garapenerako Zerbitzua

Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuari eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Landa Garapenerako Planaren barruan dauden eta Europako funtsekin kofinantzatzen diren laguntzak nahiz nekazaritza arloan sailaren eskumena diren estatuaren laguntzak izapidetu, kudeatu eta kontrolatzea.

b) Nekazaritza ustiatzietako egiturak hobetu eta gaurkotzeko eta nekazaritza sektorea gaztetzeko laguntza egitasmoak eta programak gertatzea, baita ere horiek arautzeko eta beteazteko txostenak eta proposamenak ematea.

c) Familien edo sektoreko elkarte eta kooperatiben nekazaritza ustiatzietatik sustatzeko eta arrazionalizatzeko programa garatzeko helburuaz azterlanak, txostenak, eta laguntza eta jarduketarako proposamenak gertatzea, ahal diren jardun eremu guztietan.

d) Nekazaritza ustiatzietatik laguntza eta aholkularitza teknikoak ematea haien hobekuntza eta gaurkotzeari begira, baita ere nekazaritza eta abeltzaintza egituretarako laguntza planen ondoriozko inbertsioen eta gainerako jarduketaren kontrola eta jarraipena egitea, helburu horrekin finkatutako araudira egokitzen diren dirulaguntzen ordainketa proposatuz.

e) Nekazaritzako egiturentzako laguntza programak (modalitate desberdinetakoak) arautu eta burutzeko txostenak eta proposamenak egitea, Europako araudiaren arabera.

f) Zerbitzuak kudeatutako laguntzak ikuskatu eta kontrolatzea.

g) Europar Batasunaren nekazaritzako politika barruan ezarritako arauen arabera eskatutako laguntzak ikuskatzen laguntzea (NPB, OINARRIZKO ORDAINKETA, BALDINTZAK...).

h) Lurralde eta sektore planeamenduetarekin zerikusia duten txostenak aztertu eta egitea, saileko eta eraginpeko beste sailetako zerbitzuen lankidetzan.

i) Saileko gainerako zerbitzuekin elkarlanean jardutea baliabide materialak eta giza baliabideak gehiago optimizatzeko.

j) Nekazaritza Zuzendaritzak haren gain jartzen duen beste edozein eginkizun.

9.1. Nekazaritza Sustapenaren Atala.

Nekazaritza Sustapenaren Atalari eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Nekazaritzako sustapen eta zabalkunde programak (argitalpenak eta liburuxkak) gertatu eta garatzea eta haietan aurreikusten diren zabalkunde jarduerak antolatzea.

b) Labore ezberdinetarako teknikariek egokienak eta haien eboluzioa, birmoldaketa eta banaketa aztertzea, ikerkuntza zentro ofizialekin lankidetzan arituz.

c) Ustiatzietatik laguntza ematea jarduerak sustatu eta burutzeko sailaren nekazaritzako makinekin eta Eskalmendiko finka esperimentalarekin.

d) Nekazaritza ustiatzietatik produkzio bateratu eta ekologikorako aholku ematea, baita ere bi nekazaritza mota horiek ezartzeko eta sartzeko egitasmoak burutzeko, horrelako ekoizleen elkarrekin lankidetzan arituz.

e) Ustiatzietatik aholku teknikoak ematea beraien produkzio egituren eraginkortasunari begira, entsegu eremu erakusgarriak eginez, bai eta lortutako emaitzak ezagutaraztea eta zabaltzea ere.

f) Produkzio bideak (makineria, ongariak eta landare materiala) moldatzeko eta erabiltzeko teknika, ekonomia eta administrazio kudeaketa burutzeko eta nekazaritzarako interesa duten landare espezie berriak sartzeari buruz azterlanak egitea.

g) Onartutako sektore planak edo labore jakinetarako onartzen direnak kudeatu, aplikatu, gainbegiratu eta kontrolatzea.

h) Landa Garapenerako Planaren barruan mendiko nekazaritza aldeetan eta mendiko nekazaritza aldeak ez direnetan dauden nekazaritza ustiategiei kalteordainak emateko Europako funtsekin kofinantzatutako laguntzak, ingurumen eta nekazaritza laguntzak eta produkzio ekologikorako laguntzak izapidetu, kudeatu eta kontrolatzea.

i) Nekazaritza Ekologikoaren Lurralde Batzordearen funtzionamendua kudeatzea eta bertan erabakitzen diren ekintzak garatzea, Nekazaritza Sailaren eskumenekoak badira.

j) Sektore organoetako bileretara joatea: ENEEK Kontseilua, sektore produktiboetako arloko mahaiak, produkzio integratua, label produkzioa, artisautza produkzioa eta nekazaritza sustapenarekin lotutako elkarte eta erakundeekin hitzarmenak.

k) Produkzio integratuan teknikarien kreditazioa izapidetu eta kudeatzea.

l) Mahastiaz bestelako laboreetarako eta abeltzaintzako aseguru polizak ordaintzeko diren laguntzak izapidetu eta kudeatzea.

m) Zerbitzuaren buruak haren gain jartzen duen beste edozein eginkizun.

9.2. Landa Azpiegiturako eta Ureztatzaileen Bulegoko Atala.

Landa Azpiegiturako eta Ureztatzaileen Bulegoko Atalari eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Landa azpiegitura hobetzeko planak, proiektuak eta laguntza programak gertatzea, ureztaketa lur bihurtzeko proiektuetara zuzendutakoak edo horiekin loturikoak barne hartuta, diruz lagundutako obren kontrola eta jarraipena gainbegiratzea eta, hala dagokionean, obren zuzendaritza egitea.

b) Ureztaketa lur bihurtzearekin zerikusia duten obrak proiektatu, zuzendu eta burutzea.

c) Bideen titularrak diren entitateekin erabilerako ordenantza partikularrak koordinatzea.

d) Landa bideak zaintzea eta haien erabilera kontrolatzea, ezarritako arauekin bat etorritik, eta Bideen Erregistroan jasotako landa bideen erabilera berezia edo pribatua baimentzeko edo emateko espedienteak izapidetzea.

e) Teknologia berriak sustatzeko planak proposatzea, nekazaritza bideak hobetzeko.

f) Landa Azpiegitura Planak burutzean gerta daitekeen edozein gorabeherari buruzko irizpenak ematea.

g) Sailak diruz lagundutako eta zuzendaritzak egiteko eskatzen dizkion landa egituretarako obrak kontrolatzea eta haien jarraipena egitea, eta hala behar izanez gero, obra proiektuak egin eta haiek zuzentzea.

h) Laguntza tekniko eta aholkularitza ematea toki erakundeei, nekazaritza bideen arloko jarduera programei buruz.

i) Nekazaritza bideen sarearen mantentze lanekin lotutako azterlanak, proiektuak, proposamenak eta gainerakoak egitea, abere bideenak barne.

j) Azterlanak, proiektuak, irizpenak, proposamenak eta Nekazaritza Eraberritu eta Garatzeko Legeak lurzatien baterakuntzako zonetako teknikarien esku jartzen dituen gainerako ekintza teknikoak gertatzea, baita ere horiek berekin dakartzaten lanak zuzendu eta gauzatzea.

k) Lurzatien baterakuntzako toki batzordeetan, zonako arduraduna den teknikariari esleitutako kide postuan jardutea.

l) Lurzatien baterakuntzarekin eta ureztatze lur bihurtzearekin loturiko guztian jarduketan agiritegiak mantentzea, baita Arabako Lurralde Historikoko Landa Bideen Erregistroa ere, erregistro horren kontrola eta eguneratzea gauzatzuz.

m) Finken zuinetarekin loturiko jarduketak gauzatzea, horiek egitea tasa edo prezio publikoaren pean baldin badago.

n) Ureztatzaileen elkarteei laguntza teknikoa eta prestakuntza ematea haien kudeaketa hobetzeko.

o) Uraren erabilera optimizatzea eta gaur egungo azpiegiturak gaurkotzea, ureztaketaren eraginkortasun handiagoa lortzeko, energia kontsumoa gutxituz eta haren ingurumen eragina ahalik eta gehien murriztuz.

p) Ureztaketaren kudeaketan inplikaturako erakunde guztien arteko lankidetzak bultzatzea.

q) Sailak kudeaturako laguntza desberdinen barruan kokatzen diren kontrol eta ikuskatze guztiak egiten laguntzea.

r) Zerbitzuaren buruak haren gain jartzen duen beste edozein eginkizun.

10. artikulua. Abeltzaintza Zerbitzua

Abeltzaintza Zerbitzuari eginkizun hauek betetzea dagokio, bere eskumeneko eremuetan:

– Abereen identifikazio eta erregistroaren eta trazabilitatearen eremua:

a) Arabako Lurralde Historikoko abereen trazabilitate sistemen erregistroak kudeatzea (abeltzaintza ustiategiaren erregistro orokorra, abereen banakako identifikazioko erregistroa eta etxeko espezieen mugimenduen erregistroa), horiei dagozkien datu baseen kudeaketa eta mantentzea barne hartuta.

b) Abereen trazabilitate sistemen kontrol ofizialeko eta abereen identifikazio eta erregistroaren kontrol ofizialeko programak gertatu, koordinatu, zuzendu, balioztatu eta gauzatzea.

– Epidemiologiaren eta abere osasunaren eremua:

a) Lege eta arautegietako xedapenak eta epizootiei, zoonosiei, abere osasunari eta abeltzaintza-produkzioaren elikagai segurtasunari buruzko nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoak betetzen direla bermatzea.

b) Abereengan eragina duten zoonosi eta epizootien aurkako epidemiologia jagoletza eta osasun poliziako sistema bat ezartzea eta gainbegiratzea. Abeltzaintza sektorean edo osasun publikoan eragina duten abere osasuneko eta epidemiologiako alertak kudeatzea, horretarako kontingentzia eta larrialdi planak edukiz.

c) Arau bidez erregulatuta dauden gaixotasunen aurka borrokatzeko eta horiek suntsitzeko kontrol ofizialeko osasun programak gertatu, koordinatu, zuzendu eta kontrolatzea, trebakuntza, informazio, diagnostiko, tratamendu, immunizazio, hilketa eta abarren prozesuak ezarriz. Abeltzaintza ustiategietako osasun kalifikazioak kudeatzea eta egiaztatzea, bai eta balioestea ere osasuneko edo kontrol ofizialeko jarduerak direla eta izandako galera ekonomikoengatik kalteordainak.

d) Zoonosien, nahitaez aitortu beharreko gaixotasunen edo gizarte nahiz osasun aldetik interesa duten beste patologia batzuen aurkako jagoletza, borroka, kontrol eta suntsitze egitasmo eta programak gertatu, koordinatu, zuzendu eta kontrolatzea.

e) Jarduketa ofizialak egiteko gaiturik dauden albatariak baimentzeko eta erregistratzeko proposamenak izapidetzea, bere eskumenen esparruan.

f) Arabako Lurralde Historikoko barruko nahiz kanpoko abere mugimenduaren higie eta osasun baldintzak ezartzea eta haien betetzen diren kontrolatzea. Abere kontzentrazioen eta, horien barruan, herri bazkalekuen higie, osasun, identifikazio eta ongizate baldintzak zaintzea.

g) Abere eta salgai lekualdaketak, Europako Batasunaren barruko trukeak eta esportazio-inportazioak direla eta aplikatu daitezkeen araudietan ezarritako albatari ziurtagiriak

jaulkitzea, abereen higiene, osasun, identifikazio eta babes baldintzez eta garraiorako egokitasunaz legetan xedatutako aginduzko kontrolak eta egiaztapenak egin eta gero.

h) Autonomia erkidegoko, estatuko eta Europako informazio sareetan integratutako epidemiologiako eta abere osasuneko informazio sistemetak datu base eragileak kudeatu eta mantentzea.

i) Diagnostikorako laguntza teknikoa eta borroka eta prebentzio metodoak eskaintzea lurraldeko abereen osasunean eragina duen edozein kutsatze edo parasito prozesuren aurrean, noizbehinkako gaixotasunak eta infekzioz edo parasitoz bestelakoak barne direla.

– Elikagai segurtasunaren eremua:

a) Abeltzaintzako ekoizpen primarioaren elikagai segurtasunaren alorreko lege xedapenak betetzen direla bermatzea, bere eskumenen esparruan.

b) Egitasmo eta programak gertatu, zuzendu, koordinatu eta balioztatzea, gai hauetaz:

– Higiena eta abere osasuna abeltzaintzako ekoizpen primarioan.

– Abereentzako pentsu eta janarien erabilera abeltzaintzako ekoizpen primarioan.

– Abeltzaintza ustiattegietan sortutako abere jatorriko azpiproduktuak, gizakien kontsumorako ez direnak.

– Esne gordinaren ekoizpeneko higiene eta osasun baldintzak ekoizpen primarioan. Albaitaritzako sendagaien preskripzioa eta erabilera eta sendagai hondarren presentzia abereengan eta abere jatorriko produktuetan, ekoizpen primarioan.

c) Abeltzaintzaren eremuan administrazioarako sarbide elektronikoaren gaiak estrategiak, programak eta egitasmoak sustatu, planifikatu eta koordinatzea, beste sail batzuekiko lankidetzan, eta betiere gai honetan esleiturik dauzkan eskumenen kalterik gabe.

d) Abeltzaintzako produktuen higiene eta osasun kalitatearen hobekuntza sustatzea merkantuan produktua daukaten ustiattegietan, gai honetan eskumena duten zerbitzu teknikoaren bitartez abeltzaintzako aholkularitza bultzatuz.

e) Abeltzaintza ustiattegietatik hildako animaliak eta gizakien kontsumorako ez diren abere azpiproduktuak bildu, garraiatu, eraldatu eta suntsitzeko egitasmoak gertatu, zuzendu, koordinatu eta egiaztatzea.

f) Autonomia erkidegoko, estatuko eta Europako informazio sareetan integratutako elikagai segurtasuneko informazio sistemetak datu baseak kudeatzea, sailaren eskumenen esparruan.

– Animalien babes eta ongizatearen eremua:

a) Animalien babes eta ongizaterako jardunbide egokien ezarketa sustatzea eta zabaltzea ekoizpen primarioan, garraioan, abere hilketan eta animalia esperimendazioan.

b) Animalien babes eta ongizaterako arauak bete daitezela zaintzeko eta kontrolatzeko egitasmo eta programak koordinatu, zuzendu eta egiaztatzea ekoizpen primarioan, garraioan, abere hilketan eta animalia esperimendazioan, zerbitzuaren eskumenen esparruan.

c) Beste erakunde batzuekin lankidetzan jardutea konpainiako animaliak identifikatzen eta erregistratzen, animalia arriskugarriak kontrolatzen, bazter utzitako animaliak biltzen, eta animalien babes eta animaliekin egindako probetan debekatutako gaien erabilera kontrolatzen.

d) Animalia txikiengan eta konpainiako animalien jarduketa ofizialak egiteko gaitutako albaitarien baimena eta erregistroa proposatu eta izapidetzea.

e) Gune zoologikoak, ibilgailuen garbiketa eta desinfekzio guneak, garraiolariak, garraioan ibilgailuak eta garraioetako animalia zaintzaileak baimentzeko eta erregistratzeko eskabideak izapidetzea.

f) Animaliekin esperimentuak egiten dituzten guneak baimentzeko eta erregistratzeko eskabideak izapidetzea. Animaliekin esperimentuak egiteko prozedurak baimentzea. Esperimentazio animaliekin lan egiteko homologatutako langileak erregistratzeko eskabideak izapidetzea eta baimenak proposatzea.

g) Animalien babes eta ongizateko informazio sistemetako datu base eragileak kudeatu eta mantentzea; ekoizpeneko eta konpainiako animalien eragina duten animalien ongizatearen inguruko alertak kudeatu eta konpontzea, eta zerbitzuaren eskumenen esparruan krisialdiei presakako erantzuna emateko kontingentzia eta larrialdi planak edukitzea.

– Abeltzaintza Laborategiaren eremua:

1. Abere osasunaren kontrolerako analisi laguntza.
2. Abeltzaintzan erabiltzen diren lehengaien kalitate kontrolaren inguruko analisiak.
3. Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen kalitate kontrolaren inguruko analisiak.

Berariaz, laborategiak egiten dituen analisiak helburu hauek betetzen dituzte:

Abere osasuneko laborategia.

- Abere saneamenduko kanpaina ofizialen esparruan lortutako laginen kontrola.
- Abere salmenta eta erosketetako osasun kontrola.
- Abere kontzentrazioen gaineko osasun kontrola.
- Abere jatorriko laginen analisia, haiek kontrolatu eta diagnostikatzeko.
- Zaintza epidemiologikoa.

Analisi fisiko-kimikoen laborategia.

- Abereak elikatzeko erabiltzen diren zuhain, pentsu eta lehengaien analisi fisiko-kimikoak.
- Analisi mikrografikoa, animaliak elikatzeko erabiltzen diren gaien kontrol ofizialerako.
- Azukre erremoltxaren analisia, sakarosa edukiaren bilakaera ezagutzeko eta hura biltzeko sasoirik egokiena zehazteko.
- Nekazaritza lurzoruen analisi fisiko-kimikoa.

Beste eginkizunak:

Kanpainetako material lagungarria kontrolatu, biltegitatu eta banatzea.

Beste laborategi batzuetan analisiak egiteko koordinatzea eta laginak gorde, prestatu eta bidaltzea.

Gainera, Abeltzaintza Zerbitzuak lankidetzan jardungo du saileko gainerako zerbitzuekin, baliabide materialak eta giza baliabideak gehiago optimizatzeko, eta Nekazaritza Zuzendaritzak agintzen dion beste edozein eginkizun ere beteko du. Era berean, baldintzen alorreko kontrol organismo berezitua iritziko zaio bere eskumeneko araudi guztietan.

10.1. Abelazkuntza Atala.

Abelazkuntza Atalari eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Arabako abeltzaintza ustiategietako ekoizpen sistemen hobekuntza sustatzea, natura baliabideak hobeto aprobetxatzeko eta erabiltzen diren ekoizpen bideen eraginkortasuna handiagoa izan dadin, haien errentagarritasuna eta produktuen balioa eta kalitatea handitzeko helburuaz.

b) Arabako abeltzaintza ustiategietan hazten diren abere arrazen (eta batez ere bertakoen) hobekuntza genetikoak sustatzea, hautatze eta hobetze programa egokien garapena bultzatuz, eremu honetako lanbide antolakundeekin adostasunez eta elkarlanean.

c) Babes berezia duten eta desagertzeko arriskutan dauden bertoko abere arrazak zaintzeko eta hobetzeko programen ezarketa eta garapena sustatzea, eremu honetako lanbide antolakundeekin adostasunez eta elkarlanean.

d) Sektore honetako lanbide antolakundeekin lankidetzaz hitzarmenak egin daitezkeen sustatzea, abere arraza desberdinak hobetu eta zaintzeko, genealogia liburuen kudeaketarekin, etekinen kontrolekin, sailkapen morfologikoekin eta balioztapen genetikoekin loturik haiek egiten dituzten jarduerak gainbegiratu eta baliozkotuz. Esandako akordioetan hartutako konpromisoak bete daitezkeen zaintzea.

e) Erakunde laguntzaileak direla medio, nekazaritza eta abeltzaintzako zerbitzuen ezarketa eta garapena sustatzea, Arabako abeltzaintza sektorearen bideragarritasuna eta iraupena handitzeko.

f) Material genetikoaren bilketari, gordetzeari, banaketari eta merkaturatzeari aplikatu ahal zaizkien osasun eta zooteknika arauak betetzen diren kontrolatzea. Material genetikoa biltzeko, gordetzeko, banatzeko eta merkaturatzeko eta abere ugalketako establezimenduetako erregistroak kudeatzea. Abereen ugalketan eta hobekuntzan erabiltzen den material genetikoaren kalitatea kontrolatzea, bai eta ugalketa teknikak aplikatzen dituzten zerbitzuen funtzionamendua ere. Abere arraza eta espezie desberdinen balio genetiko handiko germoplasma bankuen sorkuntza balioztatzea eta, hala badagokio, sustatzea.

g) Ezagutaraztea abeltzaintza jarduerak geure gizartearen garapenari egiten dion ekarpena, natura ingurunea eta paisaia mantenduz, populazioa finkatuz, landa ingurunean abeltzaintza jarduera bultzatuz eta biodibertsitatea eta bertako ondare genetikoa zainduz, baita geure kultura eta tradizioak ere. Abeltzaintza lehiaketak, erakusketak, sariketak eta helburu hori daukaten ekitaldi guztiak sustatzea.

h) Animalien ugalketako establezimenduak eta zerbitzu teknikoak ikuskatzea, bai eta produkzio kontroleko zerbitzuak, erregistro genealogikoa eta hobetze genetikoa ere, horien jarduera aztertzea, eta programetan lortutako datuei eta emaitzei buruzko txostenak ematea.

i) Egiaztatzea ustiategiak, haien kokapena, eraikuntza ezaugarriak, eta hondakin organikoak ezabatzeko eta aprobeitzeko metodoak.

j) Bermatzea kokapen eta eraikuntza ezaugarrien arloan ezarritako araudian betetzen dela hauei dagokiena: instalazioak, produkzio metodoak, animalien ugalketa, nutrizioa eta hobetze genetikoa, bai eta elkarrekin beste gai batzuei buruz egiten diren hitzarmenak gainbegiratzea ere.

k) Animalien nutrizioan aplikatzen diren hainbat produktu eta teknikaren produkzioa, kontsumoa eta erabilgarritasuna baloratzea, eta lortutako datu eta emaitzei buruzko txostenak egitea.

l) Nekazaritza Sustapenaren Atalarekin batera koordinatzea garrantzi nabarmeneko abeltzaintza gaii buruzko argitalpenak, foiletoak eta zabalkunde orriak egitea eta horien zabalkundea.

m) Europar Batasunaren nekazaritzako politika barruan ezarritako arauen arabera eskatutako laguntzak ikuskatzen laguntzea (NPB, OINARRIZKO ORDAINKETA, BALDINTZAK...).

n) Abeltzaintzako aseguru polizak ordaintzeko diren laguntzak izapidetu eta kudeatzea.

o) Zerbitzuaren aurrekontuaren kargura diruz lagundutako laguntzak ikuskatu eta kontrolatzea.

p) Zerbitzuaren buruak haren gain jartzen duen beste edozein eginkizun.

11. artikulua. Zuzeneko Laguntzen Zerbitzua

Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuari eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Eskualdeetako Nekazaritza Bulegoetan (ENB) lantokia duten teknikariak eta administrariak zuzentzea, horien jarduna laguntzak izapidetzen dituzten eta horien bitartez beste zerbitzu batzuk ematen dituzten Nekazaritza Saileko gainerako zerbitzuekin koordinatuz.

b) Europako funtsekin finantzatutako zuzeneko laguntzak kudeatu eta kontrolatzea, mahastietara zuzendutakoak izan ezik.

c) Europako funtsekin finantzatutako zuzeneko laguntzei buruz (mahastietara zuzendutakoak izan ezik) eta bere eskumeneko laguntza lerro desberdinei buruz solaskide izatea eta EBren ikuskatzeak koordinatzea.

d) Baldintzen ikuskatzeak koordinatzea, bai eta gai honetan Eusko Jaurlaritzaren solaskide izatea ere.

e) Eguraldi txarrak, gaixotasunek eta abarrek laboreetan (mahastietan izan ezik) egindako kalteak balioestea.

f) Establezimendu eta zerbitzu pestiziden erregistro ofizialak mantentzea eta eguneratzea.

g) Segurtasun kimikoko programetan parte hartzea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin eta "Osakidetza" Euskal Osasun Zerbitzuarekin lankidetzan.

h) Produktu fitosanitarioen establezimenduen erregistroa kudeatzea.

i) Zelaiak eta uztak zaintzea, landareentzat kaltegarriak diren agenteak detektatzeko eta eragindako eremuak mugatzeko.

j) Landareen, laboreen eta aprobeixamenduen osasunean, mintegiko hazien eta landareen ekoizpena barne, eragina duten mugak (gomendio izaerakoak edo nahitaezkoak) ezartzea.

k) Nekazaritzako azalerak, teknikak eta produkzioak kontrolatzea, analisi egokiak eginez.

l) Kanpaina fitosanitarioak egitea, landareak babesteko.

m) Abeltzaintzako primak izapidetzea eta kudeatzea.

n) Saileko gainerako zerbitzuekin elkarlanean jardutea baliabide materialak eta giza baliabideak gehiago optimizatzeke.

o) Nekazaritza Zuzendaritzak haren gain jartzen duen beste edozein eginkizun.

11.1 Eskualdeetako nekazaritza bulegoak

Eskualdeetako nekazaritza bulegoak (ENB) sei dira, herri hauetan kokatuak: Gasteiz, Amurrio, Murgia, Agurain, Santikurutze Kanpezu eta Espejo. Beren jardun esparrua Arabako Lurralde Historiko osoa da, Arabako Errioxako eskualdea izan ezik, eta eginkizun hauek betetzea dagokie:

– Europako funtsekin finantzatutako zuzeneko laguntzak izapidetzea, mahastietara zuzendutakoak izan ezik.

– Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan alta edo baja emateko, titulartasuna aldatzeko edo erregistroa aldatzeko eskaerak jasotzea eta dagokion erakundearen aurrean izapidetzea, bai eta erregistro horrekin loturiko ziurtagiriak luzatzea ere.

– Nekazaritza ustiategiak lehentasunezkoztat emateko eskaerak jasotzea eta dagokionaren aurrean izapidetzea.

– Sailaren administrazio jarduna nekazari eta abeltzainengana hurbiltzea.

– Horien eta saileko zerbitzu desberdinen arteko lokarri izatea.

– Zerbitzuaren buruak edo zuzendaritzak haren gain jartzen duen beste edozein eginkizun.

Eskualdeetako nekazaritza bulegoetako teknikari eta administrari iraunkorrak, alderdi organikoan nahiz funtzionalean, Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuaren menpean egongo dira. Gainerako zerbitzuek langileak destinatu ahal izango dituzte, era iraunkorrean nahiz aldizka.

12. artikulua. Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Mahatsa lantzeko eta ardoa egiteko teknikariek egokienak aztertzea, esperimentatzea eta zabaltzea, ikerkuntza zentro ofizialekin lankidetzan.

b) Mahastizaintza eta enologia gaietan laguntza teknikoa eta aholkuak ematea.

c) Mahastizaintzarekin eta enologiarekin zerikusia duten erregistro teknikoaren eginkizunak betetzea.

d) Bere eskumeneko gaiez ziurtagiriak ematea, indarrean dagoen legeriaren arabera.

e) Mahastizainari eta ardogileari arreta eta informazioa ematea.

f) Mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko onartutako egitasmoen banakako espedienteetako dokumentazioa berrikustea eta txostenak egitea.

g) Ezartzen diren kanpaina arauak betetzen diren zaintzea, eta haiei buruzko espedienteak informatzea, baita ere mahastizaintza eta ardogintza arloko arau hausteen aktak egitea eta zehapen prozesuen hasiera proposatzea.

h) Mahastizaintza eta ardogintza arloko gora jotzeko errekurtsuak kudeatzea.

i) Mahastien Erregistroa egitea eta eguneratuta edukitzea.

j) Mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzak kudeatzea eta kontrolatzea.

k) Mahatsondoak erazteko eskaerak eta aitortenak, landaketen eta landaketa berrien baimenak eta inskripzioa, eta eskubideen eskualdaketa kudeatzea.

l) Lurraldeko jatorri deiturekin eta ardoa sustatzeko elkarrekin lankidetzan jardutea, eta horien helburuak betetzen laguntzea.

m) Arabako ardoa sustatzeko eta haren kalitatea hobetzeko azterlanak eta proposamenak egitea.

n) Ardogintzaren lanbide arteko harremanak optimizatzeko proposamenak gertatzea.

o) Iruzzurraren aurkako borrokan laguntza teknikoa eta aholkuak ematea, beste erakunde batzuen lankidetzan.

p) Mahatsaren izakinen eta uzten aitortenak eta ardo ekoizpenaren eta ardo ez diren produktuen aitortenak jasotzea.

q) Mahastizaintzako eta ardogintzako produktuen analisiak egitea, esportaziora bideratzen diren partidak barne, eta haien ziurtagiriak ematea, indarrean dagoen legeriaren arabera.

r) Lurraldeko jatorri deituren kalitate kontrolaren pean dauden ardoak kalifikatzeko edo ez kalifikatzeko onartzeko analisiak egitea.

s) Ardoaren analisisen kalitatea kudeatzeko sistema ezartzea eta mantentzea.

t) Enologia gaietan ardogintzako beste zentro batzuekin lankidetzan aritzea.

u) Eguraldi txarrak, gaixotasunek eta abarrek mahastietan egindako kalteak balioztatzea.

v) Mahastien aseguru polizak ordaintzeko diren laguntzak izapidetu eta kudeatzea.

w) Saileko gainerako zerbitzuekin lankidetzan jardutea egin beharreko ikuskatzeak egiten, eta batez ere NPBren lehenengo nahiz bigarren zutabearen barruan sartzen diren laguntzen ordainketekin loturikoetan.

x) Europako funtsekin finantzatuak diren eta Arabako Errioxako eskualdeari dagozkion zuzeneko laguntzak kudeatzea eta kontrolatzea.

y) Europako funtsekin finantzaturako eta mahastietara bideratutako laguntzei buruzko EBren ikuskatzeak koordinatzea eta solaskide izatea.

z) Sailaren administrazio jarduna Arabako Errioxan haren helburu direnengana hurbiltzea, eta beraien eta saileko zerbitzuen arteko lokarria izatea.

aa) Saileko gainerako zerbitzuekin elkarlanean jardutea baliabide materialak eta giza baliabideak gehiago optimizatzeko.

bb) Arabako Errioxako eskualdean 11.1 artikulua eskualdeetako nekazaritza bulegoentzat finkatzen dituen eginkizunak betetzea.

cc) Nekazaritza Zuzendaritzak haren gain jartzen duen beste edozein eginkizun.

13. artikulua. Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua

Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuari eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Sailari ekonomia eta lege aholkularitza ematea.

b) Lurzatiaren baterakuntzarekin zerikusirik daukan guztiaren administrazio eta lege kudeaketa egitea.

c) Sailaren diru sarreraren eta gastuen aurrekontuaren jarraipen ekonomikoa egitea eta kontrolatzea.

d) Saileko programen aurrekontu partiden gauzatze maila koordinatzea, aurrekontu ondorioetarako.

e) Aurrekontu partida egokiei dagozkien aurrekontu kredituak aztertzea eta haien esleipena proposatzea, eta aurrekontuan bidezkoak diren aldaketak aztertu eta prestatzea, aurrekontuaren betetze mailaren eta beharizanen aldizkako azterketaren arabera.

f) Diruz lagundutako obren eta jarduketan kanpo finantzaketaren aurrerapena eta harrera kudeatzea, beste erakunde batzuen eta Europako Batasunaren itzulketak kudeatzea, eta haien aurrekontu jarraipena egitea.

g) Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroa kudeatzea, datuen ziurtagiriak eta lehenetsitako nekazaritza ustiategiaren kalitatearen ziurtagiriak ematea, eta ekainaren 9ko 17/1997 Foru Araua (Nekazaritzarekin loturiko zerga neurriei buruzkoa) aplikatzeak eskatzen dituen nekazaritzako datuak ziurtatzea edo horiei buruzko txostenak egitea.

h) Nekazaritza ustiategiarekin loturiko etxebizitza eraikitzeak dokumentazioa aztertzea eta udal lizentziaren aurreko txostenak eta baimenak gertatzea, azaroaren 29ko 49/2006 Foru Dekretua aplikatuz, eta finkak banantzeko aurretiko legezketasun txostenak gertatzea, urtarrilaren 26ko 7/1999 Foru Dekretua aplikatuz.

i) Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekiko eta gainerako fiskalizazio erakundeekiko harremanak koordinatzea eta sailatik kanpoko erakunde edo entitateek egiten dituzten auditoria eta ikuskatzeetan laguntzea.

j) Gainerako zerbitzuekin elkarlanean, datuak lantzeko egitasmoak eta Datu Pertsonalak Babesteko Legearen arabera babes berezia duten fitxategiak gainbegiratzea, koordinatzea eta kudeatzea, baita saileko kontratu prozeduren eta dirulaguntzak izapidetzeko prozeduren aplikazioa ere.

k) Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Planaren aplikazioa koordinatzea, kudeatzea eta kontrolatzea, sailak kudeatzen dituen laguntza lerro guztietan.

l) Sailari dagozkion gaiez zehapen prozedurak abiarazi, kudeatu eta kontrolatzea, baita behar ez diren ordainketengatik edo beste arrazoi batzuegatik sortutako itzulketa prozedurak ere.

m) Nekazaritza Sailaren eskumenekoak diren ondare erantzukizuneko espedienteak abiarazi, kudeatu eta kontrolatzea.

n) Europako Batasunaren zuzeneko laguntzen ordainketa izapidetzea.

o) Saileko gainerako zerbitzuekin elkarlanean jardutea baliabide materialak eta giza baliabideak gehiago optimizatzeko.

p) Ehiza eta arrantza baimenak eman eta, hala behar izanez gero, kontrolatzea.

q) Ehiza eta arrantza baimenak kudeatzea eta horien luzapena kontrolatzea ehiza edo arrantza aprobetxamenduaren erregimen bereziko lurretan edo uretan, eta lankidetzaren ematea ehiztarien azterketan.

r) Nekazaritza Zuzendaritzak haren gain jartzen duen beste edozein jarduera.

13.1. Administrazio Kudeaketa Atala.

Administrazio Kudeaketa Atalari eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Sailean oro har eragina duten administrazio lanak egitea, hala nola gutunak jaso, erregistratu, sailkatu eta banatzea.

b) Foru erabaki, dekretu eta aginduak gertatu, artxibatu eta zaintzea, dokumentuen ziurtagiri eta kopia baimenduak egitea eta sailaren xedapen orokorrak aldizkari ofizialetan eta komunikabideetan argitaratzeko izapideak egitea.

c) Espedienteen egoera kontrolatzea eta haien agiritegia kontrolatzea.

d) Administrazio kudeaketaren alorrean zerbitzuari dagozkion eginkizunak betetzea, hau da, izapidetzea gastu espedienteak, administrazio kontratazioeko espedienteak, aurrekontuaren aldaketak, partiden gaikuntza eta abarrak.

e) Laguntza eta dirulaguntza espedienteak izapidetzea eta administrazio kontrola egitea, bai emakida aldian bai ordainketa aldian.

f) Sailaren gastu eta diru sarreraren aurrekontua egiten laguntzea jarraibide orokorren arabera, eta aurrekontuaren jarraipena eta kontrola egiten ekitaldi ekonomikoan zehar.

g) Saileko ordainketa guztiak, fakturak barne, kudeatu eta kontrolatzea.

h) Nekazaritzako makinak eta basogintza teknikarien erregistro ofiziala kudeatzea.

i) Sailaren webgunea mantentzea eta eguneratzea.

j) Nekazariekin eta abeltzainekin hitzorduak ematen laguntzea, sailean izapidetu beharreko laguntzak izapidetzeko.

k) Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoaren buruak haren gain jartzen duen beste edozein jarduera.

14. artikulua. Mendi Zerbitzua

Mendi Zerbitzuak eginkizun hauek ditu:

a) Mendien, baso aprobetxamenduen eta zerbitzuen, lurren eta sistemen kontserbazioaren eta hobekuntzaren, eta basozaintzaren eskumen eksklusiboa erabiltzea.

b) Berari dagokion esparruan, ehiza eta arrantza garatzeko eta gauzatzeko eskumena, eta, beste organismo batzuekin batera, baita uren, ibaibideen, ibaiertzen eta zortasunen gaiko eskumena ere erabiltzea.

c) Jabari publikoko mendien gaian burutzapen eskumena erabiltzea, eta ondarezko mendi publiko eta pribatuetan babes eskumena erabiltzea, Mendiei buruzko foru arauan ezarritakoaren arabera. Eginkizun hauek dauzka:

1. Baliabide hauek antolatu, kontserbatu, kudeatu eta sustatzea: mendietakoak, edafikoak, ibaietakoak, basoetakoak, baso florari eta faunari dagozkionak, eta ehizari eta arrantzari dagozkionak; mendi publikoen administrazioa eta zaintza sustatzea eta partikularren kudeaketa kontrolatzea.

2. Higadura eta basamortutzea saihestea, bai eta basoetako suteen ondorio latzak ere.

3. Basoen aberastasuna zaintzea eta babestea, batez ere mendien onura publikoaren adierazpenak.

4. Babestutako guneen baso kudeaketa zuzentzea eta lurralde plangintzako figuren idazketan parte hartzea, urbanizagarria ez den mendiko lurrari, ibaiei eta basoei dagokienez.

5. Baso Erreserben Katalogoa sustatu eta zaintzea.

6. Landa Plangintza Iraunkorreko tresnak idaztean parte hartu eta garatzea eta burutzea baso alorrean, baso laguntzen planaren edo horretarako gaitu daitezkeen beste baliabide batzuen bidez.

d) Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren lankidetzarekin, Eusko Legebiltzarraren Ehizari buruzko Legeak eta hark arautzen ez duenetan Ehizari buruzko foru arauak finkatutako eskumena baliatzea, eta eginkizun hauek betetzea:

1. Ibaietako arrantza eta ehiza arloetan foru eskumenak garatzen eta burutzen direla gain-begiratu eta koordinatzea.

2. Laguntzea eta antolatzea Euskal Autonomia Erkidegoko ehiza baimena lortzeko azterketa, egin behar denean.

e) Basozaintza antolatu, banatu eta zuzentzea.

f) Bere eskumenerako lizentziak eta baimenak ematea, Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren lankidetzan.

g) Nekazaritza Zuzendaritzak agintzen dizkion gainerako eginkizunak.

14.1. Basogintza Atalak (Ekialdea, Mendebaldea eta Erdialdea).

Atal horietako bakoitzari eginkizun hauek betetzea dagokio, bakoitzaren dagokion lurralde eremuan:

a) Basoak kudeatzeko eta gaixotasunak eta izurriteak tratatzeko programetarako jardueri buruzko proiektuak eta proposamenak egitea.

b) Mendi publikoen eta ondare mendien baso aprobetxamendua kudeatzea, eta mendietako aprobetxamendua kontrolatzea.

c) Txostenak ematea, basoetarako laguntza programak proposatzea eta onura publikoko mendien espedienteak abiaraztea, bai eta babestu beharreko basoak katalogatzea ere; ikerketak egin, mugaketa eta mugarritzea, eta lurrak ofizioz berreskuratzea zein administrazio bidez utzaraztea, eta okupazioen, erabileren, zortasunen, kargen, eskuratzeen eta trukaketen txostenak egitea.

d) Mendietan eta ondoko eremuetan suaren erabilera prebenitu, baimentzea beharrezkoa denean eta kontrolatzea.

e) Baso suteen aurka egin eta erretako eremuak bereoneratzea, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailaren lankidetzan.

f) Zigor espedientei buruzko txostenak egitea, instruktoreak hala eskatzen duenean, mendi arloko araua hautsi denean.

g) Atalari atxikitako basozaintza zuzentzea, eta, beharrezkoa denean, solaskide izatea enpresa laguntzaileekin.

h) Zerbitzuaren buruak agintzen dituen beste guztiak.

14.2. Ehiza eta Arrantza Atala.

Atal horri eginkizun hauek dagozkio:

a) Ur kontinentalen arrantza eta ehiza aberastasuna zaintzeko, sustatzeko, mantentzeko eta aprobetxamendu egokia egiteko lanak eta azterlanak kudeatu eta zuzentzea.

b) Ur publiko kontinentalen zaintza egitea, bai eta horietako ibilgu naturalen, urtegien, ibaiertzen eta zortasunena ere; bestalde, urei eragiten dieten proiektuei eta obrei buruzko txostenak egitea.

c) Ehiza eta arrantza debekatzeko agindu orokorrak aztertu eta proposatzea, bai eta horien arautegi osagarria ere.

d) Ehiza esparruak eta ibaietako arrantza esparruak ezartzeko espedienteak izapidetzea; horien antolamendu planei eta jarraipenari buruzko txostenak egitea, eta esparru horien kudeaketa eta aprobetxamendua kontrolatzea.

e) Zehapen espedientei buruzko txostenak egitea, instruktoreak hala eskatzen duenean, ehiza edo ibaietako arrantza arloko araua hautsi denean.

f) Atalari atxikitako Basozaintza zuzentzea, eta, beharrezkoa denean, solaskide izatea enpresa laguntzaileekin.

g) Zerbitzuaren buruak agintzen dituen beste guztiak.

14.3. Basozaintza.

Lurralde historikoetako Legearen 7a) 9 artikuluan ematen dion foru eskumenaren arabera, eta Arabako ohiko araubidean, Basozaintza Mendi Zerbitzuaren mende egongo da, haren atalen bitartez.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Zuzendaria kanpoan, gaixorik edo aldi baterako ezinduta egonez gero edo abstenitu edo errefusatu izanez gero, bera ordeztzeko araubidea Kontseiluaren irailaren 22ko 54/2015 Foru Dekretuan xedatutakoari lotuko zaio.

Bigarrena. Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoari buruzkoak, 18.3 artikuluan aurreikusitakoa betez, xedapen honetan ezartzen den egitura organikoaren ondorio diren lanpostu zerrendaren aldaketak funtzio publikoaren alorrean eskumena duen erakundeak jasozaraziko ditu lanpostu zerrenden unean uneko egoerari buruz aldizka eguneratutako informazioa daukan dokumentu batean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabetuta geratuko da azaroaren 8ko 64/2012 Foru Dekretua, baita bertan ezarritakoaren aurka doazen gainerako xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2016ko otsailaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

ALFREDO SÁEZ DE CASTILLO BELTRÁN DE OTALORA

